

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onestea edateko uraren hornidura eta saneamendu zerbitzuaren tasa arautzen duen 7. zerga ordenantzaren 1. eranskinaren aldaketa

Udalbatzak, 2019ko abenduaren 19ko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion edateko uraren hornidura eta saneamendu zerbitzuaren tasa arautzen duen 7. zerga ordenantzaren 1. eranskina aldatzeari (2019/9/S062 espedientea), eta 2019ko abenduaren 30eko ALHAOn (149. zk.) argitaratu zen. Erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, hala agintzen baitu Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan, eta jendaurrean jartzen da zerga ordenantzaren testu osoa, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70-2 artikuluan eta aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak (Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duenak) 17.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen hitzez hitz:

7. ERANSKINA. 1. EDATEKO URAREN HORNIDURA ETA SANEAMENDU ZERBITZUAREN TASA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

Zerga ordenantza honen xedea da Amurrioko Udalak, zuzenean edo erakunde instrumental baten bidez, edateko uraren hornidura eta saneamendu zerbitzuak emateagatik sortzen diren tasak antolatzea eta arautzea, zerbitzua emateko modua edozein dela ere.

2. artikulua.- Oinarriak

Zerga ordenantza honen xede diren tasen konfigurazioa uraren ziklo osoaren kontzeptuan oinarritzen da, honela definituta: hiri ingurune batean ura erabiltzeak dakarren prozesu eta jardueren multzoa, hau da, ura biltzeko lekuetatik kontsumorako lekuetara bideratzeko sareen azpiegitura konplexuan, non alta hornidurarako, biltegitratzerako, edangarri bihurtzeko eta hornitzeko instalazioak lotzen baitira. Ez da ahaztu behar txorrotako ur hori erabiltzen den unean saneamendu sareen bidez husten dela hondakin urak tratatzeko instalazioetaraino, berriro isuri baino lehen.

3. artikulua.- Eskumenak eta ahalmenak

Amurrioko Udalarari dagokio Amurrioko udalerrian edateko ura banatzeko eta ur hori bajaran edo estolderian saneatzeko zerbitzuaren titulartasuna.

4. artikulua.- Eremua

Eremu subjektiboari dagokionez, ordenantza hau zerbitzu horien erabiltzaile guztiei aplikatuko zaie. Erabiltzaileak zerga ordenantza honen xede diren tasekin lotutako zerbitzuak nola eman arautzen duten xedapenetan zehazten dira.

5. artikulua.- Tarifen egitura

1. Zerga ordenantza honen xede diren tasen tarifa egiturak oinarri hartzen ditu uraren ziklo osoa eta berdintasunaren, ekitatearen, nahikotasunaren eta kostuak berreskuratzearen printzipioak.

2. Kostuak berreskuratzearen printzipioari jarraituz, tarifaren bidez estaliko dira ingurumen kostuak, baliabidearen kostuak eta zerbitzuak kudeatzeko kostuak, finkoak zein aldakorrak. Betiere, zerbitzuak kudeatzeko kostuetan sartu beharko da lehendik badauden azpiegituren amortizazioa, bai eta azpiegitura horiek ustiatu, babestu eta mantentzeko gastuak eta, kasua bada, haien bizitza erabilgarria amaitu aurretik kendu eta azpiegitura berriak jartzeko beharrezkoa dena ere, zerbitzuen eraginkortasun ekonomikoa eta baliabidearen zentzuzko erabilera une oro mantentzeko eta ahal den neurrian hobetzeko.

II. KAPITULUA. ZERGA EGITATEA

6. artikulua.- Zerga egitatea, oro har

Zerga ordenantza honetan araututako ordainarazpenetarako bide ematen duten zerga egitatea da, oro har, uraren ziklo osoa osatzen duten jarduerak, bigarren mailako sareko hornidura zerbitzuak ematea eta Amurrioko udalerrian dauden erabiltzaileei banaketa, saneamendua eta arazketa egitea. Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira, berariaz, Amurrioko udalerriko administrazio batzarretan dauden erabiltzaileak, Udalak emandako zerbitzuaren erabiltzaileak ez direlako.

7. artikulua.- Ur horniduraren tasa

Ur horniduraren tasaren zerga egitatea da ur hornidurarako eta kontsumorako sareak erabili ahal izatea, lehen mailako saretik zuzenean edo bigarren mailako sareetatik, ur hornidurarako ahalezko edota benetako aukera horren arabera.

8. artikulua.- Saneamendu tasa

Saneamendu tasaren zerga egitatea da hornidura publikotik edo pribatutik datozen uren benetako edo ahalezko kontsumoa eta/edo isurketa; izan ere, uraren ziklo osoa definitzen duten hainbat prozesuren arabera, hornitzen diren bolumen horiek behar bezala tratatu behar dira, eta eskatzen dute saneamenduko sistema publikoak eraiki, erabili eta zaintzea, hondakin ur edo lokatzen saneamendu sareen edo bildu eta tratatzeko sistema alternatiboen egungo eta/edo programatutako erabilgarritasuna oinarri hartuta.

9. artikulua.- Salbuespenak eta hobariak

1. Saneamendu tasa ordaindu beharretik salbuetsita egongo dira Amurrioko Udalak edo partzuergoak ezarritako arauetara jarraituz isurketarako dispensa lortzen dutenak.

2. Jabetza publikoko kirol instalazioei dagokien ur erabilerak zerga oinarriaren ehuneko 95eko hoberia izango du.

10. artikulua.- Horniduraren eta saneamenduaren tasei lotutako erabilerak

A. Hornidura tasa:

Uraren hornidura eta banaketa zerbitzuak emateagatik tasen tarifak zehazteko, eta kontsumoaren xedearen arabera, honako egoera hauek zehazten dira:

a. Etxeko erabileretarako hornidurak, hots, etxebizitzetako hornidurak, betiere etxebizitzetan inolako industria, merkataritza edo lanbide jarduerarik egiten ez bada.

b. Abeltzaintzarako edota nekazaritzako jardueretarako hornidurak.

c. Titulartasun publikoko kirol instalazioetarako hornidura.

d. Beste erabilera batzuetarako hornidurak; halakotzat jotzen dira industriak, merkataritza eta zerbitzu establezimenduak eta erakunde erabilerak.

B. Saneamendu tasa:

Ez da bestelako erabilerarik aurreikusten saneamenduko tarifak ezartzeko.

11. artikulua.- Edateko urez hornitzeko zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko tasa

Zerbitzuan alta emateagatik tasa horren zerga egitatea da zerbitzua ematen duenak edateko uraren kontagailu bat hornitzea eta instalatzea.

12. artikulua.- Edateko urez hornitzeko zerbitzuan baja emateagatik ordaindu beharreko tasa

Zerbitzuan baja emateagatik tasaren zerga egitatea da zerbitzua ematen duenak baja eman zaion kontratuko kontagailua kentzea.

III. KAPITULUA. SUBJEKTU PASIBOAK

13. artikulua.- Subjektu pasiboak, oro har

1. Zerga ordenantza honetan araututako tasen kargapekoak dira, oro har, uraren ziklo osoko zerbitzuen azken hartzaileak, araudi erregulatuazilean erabiltzaile gisa definitzen direnak.

2. Subjektu pasiboak izan daitezke, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak eta Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan aipatzen diren entitateak, baldin eta uraren ziklo osoko zerbitzuak, zerga ordenantza honen xede diren horiek, eskatzen badituzte, zerbitzu horietatik onura ateratzen badute edo zerbitzu horiek eragiten badiete.

3. Bestalde, subjektu pasiboak izan daitezke, zergadunen ordezeko gisa, pertsona fisiko eta juridikoak eta Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan aipatzen diren entitateak, baldin eta uraren ziklo osoko zerbitzuek, ordenantza honen xede diren horiek, ukitutako higiezin jabeak badira; bai eta eraikitzaileak eta obren kontratistak ere, tasaren sortzapena obrak egiteari lotuta dagoen kasuetan.

4. Bai zergaduna bai zergadunaren ordezkoa ordaintzera behartuta daude zordun nagusi gisa. Tasaren likidazioa egiten eta zuzentzen zaion zergadunak edo zergadunaren ordezekoak ordaindu beharko du zerga zorra, zergadunak edo zergadunaren ordezekoak egina izan dezakeen eskaera gorabehera.

14. artikulua.- Ur horniduraren tasa

Ur horniduraren tasaren subjektu pasiboak honako hauek izango dira:

1. Zergadun gisa, hornidura kontratuaren titularra edo eskatzailea, edo, hala behar denean, hornidura jasotzen duen higiezinako legezko okupatzailea edo erabiltzailea.

2. Zergadunaren ordezeko gisa, hornidura kontratua lotzen zaion edo, kasua bada, hornidura dagokion higiezinaren jabea.

15. artikulua.- Saneamendu tasa

Saneamendu tasaren subjektu pasiboak honako hauek izango dira:

1. Zergadun gisa, ur hornidurako kontratuaren titularra edo eskatzailea, edo, hala behar denean, zerbitzu horren erabiltzailea, saneamendu sistemaren onuraduna den aldetik. Saneamendu zerbitzua banaka ematen denean, horretarako sinatutako kontratuaren titularra edo eskatzailea, edo kontratuari lotutako higiezinako erabiltzailea edo legezko okupatzailea.

2. Zergadunaren ordezeko gisa, ur hornidura lotzen zaion higiezinaren jabea, saneamendu sistemaren onuraduna den aldetik.

16. artikulua.- Edateko urez hornitzeko zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko tasa

Edateko urez hornitzeko zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko tasaren subjektu pasiboak honako hauek izango dira:

1. Zergadun gisa, altaren eskatzailea, edo, hala behar denean, kontagailua lotzen zaion edo dagokion zerbitzu kontratuaren titularra den erabiltzailea.

2. Zergadunaren ordezeko gisa, alta lotzen zaion edo dagokion higiezinaren jabeak.

17. artikulua.- Edateko urez hornitzeko zerbitzuan baja emateagatik ordaindu beharreko tasa

Edateko urez hornitzeko zerbitzuan baja emateagatik ordaindu beharreko tasaren subjektu pasiboak honako hauek izango dira:

1. Zergadun gisa, bajaren eskatzailea, edo, hala behar denean, kontagailua lotzen zaion edo dagokion zerbitzu kontratuaren titularra den erabiltzailea.
2. Zergadunaren ordezkio gisa, baja lotzen zaion edo dagokion higiezinaren jabeak.

IV. KAPITULUA. ZERGA EZARPENAREN OINARRIAK

18. artikulua.- Zerga oinarri orokorra

Zerga ordenantza honetan araututako tasen zerga oinarriak hainbat parametroz osatuko dira; parametro horiek magnitudeak izango dira eta euren gainean aplikatuko dira tarifak, kapitulu honetako hurrengo artikuluetan definitzen diren moduan.

19. artikulua.- Ur horniduraren tasa (banaketa)

1. Honako hauek dira zerga oinarria osatzen duten magnitudeak:

- a. Ur horniduraren kontagailuaren kalibrea.
- b. Hornidura jasotzen duten eta kontagailu horrek kontrolatutako kontsumoak dituzten etxebizitzak, lokalen edo horiekin parekatutako erabileren kopurua.
- c. Kontsumitutako ur bolumena, haren erabilerarekin edo xedearekin lotuta.

2. Ureztatze aho, ur hargune eta abarrekoetatik aldi baterako erabilera justifikatueterako ura kontsumitzen den kasuetan, hornidurak 6 hilabete baino gutxiago irauten badu, aurretiaz finkatutako eguneko bolumena aplikatzen da.

3. Banaketa tasagatiko zerga kuota gisa ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, tarifak aplikatzen zaizkie zerga oinarria osatzen duten magnitudeei.

Tarifa horiek binomikoak dira, halako moldez non zenbateko hauek batuz kalkulatzen baita tasa:

- a. Goren mugako zenbateko bat, kontagailuaren kalibrea erreferentzia duena, bider kontagailuak hornidura kontrolatzen dien etxebizitzak, lokalen edo parekatutako erabileren kopurua.
- b. Zenbateko aldakor bat, ur kontsumoen arabera ezartzen dena, ur kontsumoak tartetean zatituta; tarte horien zenbateko unitarioak hornidurari lotutako erabileren arabera bereizita daude.

Hainbat erabiltzailek kontagailu orokor bat erabiltzen dutenean, kontsumo osoari aplikatuko zaio haien tarifa-epigrafearen bigarren tarterako ezarritako prezioa.

20. artikulua.- Saneamendu tasa

1. Honako hauek dira zerga oinarria osatzen duten magnitudeak:

- a. Isuri ahal izan den ur bolumena.
 - b. Ur hornidurako kontagailuaren kalibrea, edo, hala badagokio, saneamenduko kontagailuarena.
2. Saneamendu tasagatiko zerga kuota gisa ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, tarifak aplikatzen zaizkie zerga oinarria osatzen duten magnitudeei.

3. Tarifa horiek binomikoak dira, halako moldez non zenbateko hauek batuz kalkulatzen baita tasa:

- a. Goren mugako zenbateko bat, kontagailuaren kalibrea erreferentzia duena.
- b. Zenbateko aldakor bat, hornidurari edo isurketari lotutako m³ guztietarako bakarra.

21. artikulua.- Egiatzapenagatiko likidazioa eta kontagailuaren matxura edo akatsarengatiko erregularizazioa, ur horniduraren eta saneamenduaren tasetan

1. Kapitulu honetako aurreko artikuluetan adierazitakoa gorabehera, egiaztatzen baldin bada kontagailuak beti funtzionatzen duela baimendutakotik gorako errore positiboarekin, edo, oro har, kontagailuek errore edo matxuraren bat dutenean, tarifak aplikatu behar zaizkion magnitudea, zerga kuota zehazteko kontuan hartzen dena, kontagailu berria instalatu ondoko hogeita hamar egunetan kontagailu berriarekin egiten diren kontsumoek osatuko dute, eta haren gainean aplikatuko dira likidazioa dagokien hilabeteetan indarrean egon diren tarifak.

2. Atzeraeragineko aldi hori ez da inoiz izango sei hilabetetik gorakoa.

3. Aplikagarria izango da, halaber, saneamenduaren zerga oinarria hornidurako ur bolumenaren bidez zehazten den kasuetan.

4. Inguruabarren batek eragozten badu isuritako emaria zuzenean zehaztea, zenbatespena egingo da, eta horretarako oinarritzat hartuko dira hornidura iturri guztietako kontsumoak, prozesuan erabilitako urak eta aurreko urteko uren balantzea; horrela zehaztuko dira isuritako urak.

22. artikulua.- Ur horniduraren eta saneamenduaren tasetan, barruko instalazioetan ustekabeko matxurak gertatzea

1. Egiaztatzen baldin bada barruko instalazioetan ezkutuko matxuren bat dagoela eta horrek erabiltzailearen ohiko kontsumoen bolumena aldarazten dutela, ezarritako prezioan fakturatuko da batez besteko ohiko kontsumotik gorakoa, baina haren tarifa-epigrafeko bigarren tarterako ezarritako prezioa aplikatuko zaio.

Edonola ere, tasagatik ordaindu beharreko azken zenbatekoak ezingo du gainditu egindako azken lau hiruhilekoetako likidazioetan ezarritako tasaren batez bestekoaren ehuneko 800.

Likidazioaren zenbatekoa ehuneko 800era murrizte horrek ezkutuko jarioak eragindako hiruhilekoetako batean bakarrik sortuko ditu ondorioak.

Kontagailu orokorren kasuan, lerroalde honetan aipatzen den murrizketa matxura erkidegoaren instalazio orokorrean gertatzen denean bakarrik aplikatuko da.

2. Saneamendu tasaren kasuan, azken lau hiruhilekoetan egindako likidazioetan fakturatutako batez besteko bolumena soilik fakturatuko da.

23. artikulua.- Edateko urez hornitzeko zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko tasa

1. Edateko urez hornitzeko zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko tarifa kontratatutako kontagailuaren kalibrearen arabera zehaztuko da.

2. Zerga ordenantza honen eranskinean ageri da tarifa hori, kontagailu mota bakoitzerako.

24. artikulua.- Edateko urez hornitzeko zerbitzuan baja emateagatik ordaindu beharreko tasa

Edateko urez hornitzeko zerbitzuan baja emateagatik ordaindu beharreko tarifa goren mugako zenbateko bat izango da, zerga ordenantza honen eranskinean ageri dena.

V. KAPITULUA. ZERGA KUOTA**25. artikulua.- Zerga kuota**

1. Zerga ordenantza honetan araututako tasetako bakoitzaren zerga kuota kalkulatzeko, haren ezarpen oinarria edo zerga oinarria definitzeko erabilitako magnitudeari aplikatuko zaizkio ordenantza honen eranskinean ageri diren tarifak, edo, hala behar denean, zuzenean aplikatuko dira.

2. Horrela lortzen den zerga kuotari, hala behar denean, zeharkako zergak aplikatuko zaizkio, eta, zehazki, balio erantsiaren gaineko zerga aplikatuko zaio, gaiari buruzko araudi aplikagarrian ezarritako eran.

VI. KAPITULUA. TASEN APLIKAZIOA: KUDEAKETA, LIKIDAZIOA ETA BILKETA

LEHENENGO ATALA. SORTZAPENA

26. artikulua.- Sortzapenak, oro har

1. Zerga ordenantza honetan araututako tasak eta zerga betebeharra sortuko dira haietako bakoitzaren zerga egitatea den jarduera hasten denean.

2. Tase azken sortzapen eguntzat joko da zerbitzuko baja formalizatzen den eguna, baja hori zerbitzua arautzen duen erregelamenduan ezarritako moduan egiten bada, edo isurketarako lekapena formalizatzen den eguna.

27. artikulua.- Ur horniduraren tasa

1. Ur horniduraren tasak hornidurarako kontratua formalizatzen den unean sortzen dira, eta, horrelakorik ezean, hornidura hasten denean.

2. Behin hornidura ezarrita eta hasita, tasa hori egunero sortuko da, eta zergaldi gisa definitzen diren denbora tarteetan likidatuko da.

28. artikulua.- Saneamendu tasa

1. Saneamendu tasa, saneamendu zerbitzua banaketaren osagarria den aldetik, araudi erregulatzailean ezarritakoaren arabera, zerbitzu kontratua formalizatzen den unean sortzen da, edo, horrelakorik ezean, zerbitzu hori egiten den unean.

2. Saneamendu zerbitzua banaka ematen den kasuetan, araudi erregulatzailean ezarritakoaren arabera, saneamendu tasa sortzen da isurketarako baimena formalizatzen den unean, edo, horrelakorik ezean, isurketa egiten den unean.

3. Behin isurketa ezarrita eta hasita, tasa hori egunero sortuko da, eta zergaldi gisa definitzen diren denbora tarteetan likidatuko da.

29. artikulua.- Edateko urez hornitzeko zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko tasa

Hornidura zerbitzuko altari lotutako lanengatik tasa lan horiek egiten direnean sortzen da.

30. artikulua.- Edateko urez hornitzeko zerbitzuan baja emateagatik ordaindu beharreko tasa

Hornidura zerbitzuko bajari lotutako lanengatik tasa lan horiek egiten direnean sortzen da.

BIGARREN ATALA. ZERGALDIA

31. artikulua.- Zergaldia, aldian behin sortzen diren tasetan

1. Aldian behin sortzen diren tase zergaldia kasuan kasuko zerga oinarria osatzen duen magnitudea ebaluatzeko metodoari egokituko zaio, hau da, kontsumoa edo isurketa neurgailu egokiaren bidez kuantifikatzeko metodoari.

2. Horretarako, fakturazioa hogeita hamar (30) eta ehun eta hogeita (120) egun bitarteko aldie-tan egingo zaie bigarren mailako sarekoei, eta kasu horretan, zergaldia, ahal dela, hiruhilekoari hurbildu edo lotuko zaio.

32. artikulua.- Zergaldia, aldian behin sortzen ez diren tasetan

Aldian behin sortzen ez diren tasak, hau da, hornidura zerbitzuan alta eta baja emateagatik ordaindu beharreko tasak, sortzen diren unean likidatuko dira.

33. artikulua.- Tarifen hainbanaketa

Zergaldi baten barruan tarifen zenbatekoa aldatzen bada, tase kuota kalkulatzeko, biderketa hau egingo da: zerga oinarritzat definitutako magnitudearen eguneko batez bestekoa bider kasuan kasuko tarifa indarrean egondako egunen kopurua.

*HIRUGARREN ATALA. ZERGA KUDEAKETAKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK.***34. artikulua.- Tasen likidazioa**

1. Zerga ordenantza honetan araututako tasen likidazioak, zenbatespen metodoaren ondorio direnean, araudi erregulatuaren definitutakoaren arabera, behin-behinekotzat edo konturako likidaziotzat joko dira, hots, kontagailuen egiazko irakurketak lortzen diren hurrengo zergaldietako emaitzen kontura egintzat joko dira, preskribatzen ez diren artean.

2. Artikulu honetako aurreko apartatuan ezarritakoa ezertan ukatu gabe, eta arau orokor gisa, likidazioak kasuan kasuko zerga oinarriaren aldaketei lotuta egongo dira.

3. Zerbitzuak zerga oinarritzat definitutako bolumen, emari edo bestelako magnitude finko baten arabera edo denbora unitateko kantitate jakin baten arabera kontratatzen direnean, araudi erregulatuaren ezarritako moduan, aurretiaz likidatuko dira zerbitzuen ondorioz sortzen diren tasak.

35. artikulua.- Baterako kudeaketa

Zerga ordenantza honetan araututa dauden eta zergaldi bera duten tasak batera likidatu eta bildu ahal izango dira. Horretarako euskarri dokumental bakarra erabiliko da, tasa guztiak batuko dituen, baina kontzeptu bakoitzaren oinarriak eta tarifak bereizita, horien likidazioak bereiz egingo baitira. Kontzeptu bakoitzari dagozkion kuotak bereiz agertuko dira; horien guztien batura kuota bateratua izango da, eta dokumentu bakarraren bidez ordainaraziko da.

36. artikulua.- Betebehar formalak

Zerga ordenantza honen III. kapituluaren definitutako tasak ordaindu behar dituzten subjektu pasiboek zerbitzuetako alta eta baja adierazpenak egin beharko dituzte, araudi erregulatuaren eta gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritako moduan. Gainera, jakinarazi egin beharko dute zerga ordenantza honetan araututako tasak kudeatu, likidatu eta biltzeko garrantzia duten datu formaletan gerta litekeen edozein aldaketa, eta jakinarazten ez badute edo txarto jakinarazten badute, ondorioen erantzuleak izango dira.

*LAUGARREN ATALA. BILKETARAKO JARDUKETAK ETA PROZEDURA***37. artikulua.- Ordaintzeko borondatezko epea**

Zerga ordenantza honetan araututako tasa guztiak hogeita hamar eguneko epean ordainduko dira, dagokien likidazioa jakinarazten denetik hasita.

38. artikulua.- Betebehar aldian

Aurreko artikuluan ezarritako borondatezko aldian ordaintzen ez bada, betebehar aldian hasiko da eta tasak premiamendu bidez ordainaraziko dira.

39. artikulua.- Ordaintzeko moduak

1. Ordenantza honetan araututako zerbitzuak emateagatik sortutako tasei dagozkien zerga zorrak honela ordaindu ahal izango dira:

- a. Banku entitate edo aurrezki kutxa batean helbideratuta.
 - b. Banku kontuan sartuta, zerbitzu emailearen izenean, eta ordaindu beharreko zerga likidazioa zein den adierazita.
 - c. Legez onartutako beste edozein bide erabilita.
2. Likidazioak eskudirutan ordaintzeko eskatu ahal izango da, honako kasu hauetan:
- a. Horniduraren baja eskatzen denean egiten diren amaierako likidazioak.
 - b. Ordaintzeko borondatezko epeetik kanpo ordaintzen den edozein likidazio.

VII. KAPITULUA. ZEHATZEKO AHALA

*LEHEN ATALA. ZERGA ARLOKO ARAU HAUSTEAK***40. artikulua.- Kontzeptua**

Zerga arloko arau haustetzat joko dira doloizko egintzak edo ez-egiteak eta erruzkoak, zabarkeria maila edozein dutela ere, halakotzat aurreikusita eta zehatuta badaude Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean eta gainerako xedapen aplikagarrietan, ezertan eragotzi gabe ordenantza honetan ezarritakoa.

41. artikulua.- Motak

Honako hauek joko dira zerga arloko arau haustetzat:

1. Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean halakotzat aurreikusten direnak.
2. Zerbitzu emaileari horniduraren edo isurketaren ur bolumena kontrolatzeko behar diren elementuak ezkutatzea.
3. Kontsumo edo erabilera klandestinoak. Kontsumo edo erabilera klandestinetzat joko da zerbitzuak erabiltzea alde aurretik kasuan kasuko zerbitzua kontratatu gabe edo isurtzeko baimena eskuratu gabe, zerbitzuak arautzen dituzten ordenantzetako arauari edo aplikatu beharreko beste edozein arauri jarraituz.

4. Zerbitzuak arautzen dituzten ordenantza eta erregelamenduetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, tasak ordainarazteko erabili behar diren egiazko magnitudeak ezkutatzeko xedez.

*BIGARREN ATALA. ZEHAPENAK ETA NEURRI OSAGARRIAK***42. artikulua.- Lege araubidea**

Zerga arloko arau hausteengatik zehapenak ezarriko dira Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusitako moduan.

Aipatutako foru arauan aurreikusten den prozedura erabiliko da zehapenak ezartzeko.

43. artikulua.- Neurri osagarriak

Iruzur egiteko asmoz instalazioak manipulatzeko diren kasuetan, isurketarako baimena eta/edo ur hornidura eten egingo da harik eta instalazioak lehengoratu eta zuzendu eta eragindako gastuak likidatu arte, araudi erregulatuazalean ezarritako moduan.

44. artikulua.- Iruzurrezko bolumenen zenbatespena

1. Egindako iruzurraren ezaugarriak direla-eta ezin bada zehaztu iruzur eginda zenbat ur kontsumitu edo isuri den, zenbatespenerako irizpide hauek aplikatuko dira tarifak ordainarazteko eta zehapenak ezartzeko:

a. Ura banatzeko sarearen hornidurak eta/edo saneamenduaren erabiltzaileak:

a.i. Etxeko erabilerak, eta titulartasun publikoko kirol instalazioetakoak: berrogeita hamar metro kubiko (50 m³) hiruhilekoko, arau hausteak irau duen aldirian, preskripzio epearen mugara arte.

a.ii. Obretarako hornidura: 100 m³ (ehun metro kubiko) hiruhilekoko, arau hausteak irau duen aldirian.

a.iii. Industriako erabiltzaileak, merkataritza eta zerbitzu establezimenduak, nekazaritzako jarduerak, foru egoitzak, autonomia erkidegoarenak eta Estatuko Administrazioarenak, erakunde autonomoak, etxeko ur beroaren instalazio zentralizatuak, suteetako ur harguneak, eta aurreko epigrafeetan sartu gabeko beste edozein hornidura: ehun metro kubiko (100 m³) hiruhilekoko, arau hausteak irau duen aldirian, preskripzio epearen mugara arte.

b. Saneamenduaren etxeko erabiltzaileak, baliabide propioak dituztenak: Arau hausteak iraun bitartean, hiru hilean behin hoge metro kubikoko (20 m³) ur isurketa, preskripzioaren gehieneko mugaraino.

c. Saneamenduaren gainerako erabiltzaileak, baliabide propioak dituztenak: Arau hausteak iraun bitartean, hiru hilean behin ehun metro kubikoko (100 m³) ur isurketa, preskripzioaren gehieneko mugaraino.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako kontsumoak gainditu direla pentsatzekoa den kasuetan, tasa ordainarazteko eta zehapena ezartzeko oinarria honako hau izango da: kontagailu berria instalatu eta hurrengo hiru hilabeteetako eguneko kontsumoa eta/edo horren zenbatespena, arau haustea egin den aldiari aplikatuta, preskripzio epearen mugara arte.

45. artikulua.- Birjartzea eta kalte ordaina

Zehapen prozeduraren ondorioz egotz litekeen administrazio erantzukizunaz gainera, arau hausteak eraldatu duen egoera lehengoratzeko eskatu ahalko zaie erantzuleei, bai eta arau hausteak eragindako kalte eta galeren ordaina emateko ere.

46. artikulua.- Zehapenak etetea

Zerga arloko zehapenen betearazpena automatikoki etengo da, bermerik jarri beharrik gabe, zehapenen kontra bidezko errekurtsoa edo erreklamazio administratiboa aurkezten bada, behar den moduan eta epean. Zehapenak ezingo dira betearazi administrazio bidean irmoak izan arte.

VIII. KAPITULUA. BERRIKUSPEN PROZEDURAK

47. artikulua.- Hitzaurrea

Zerga ordenantza honetan araututako tasak aplikatzeko eta zerga arloko zehapenak ezartzeko egintzak eta jarduketak berrikusi ahal izango dira, indarreko xedapen aplikagarrietan ezarritakoaren arabera. Ezin izango dira inola ere berrikusi epai judizial irmoaren bidez berretsitako administrazio egintzak.

48. artikulua.- Berrikuspen prozedura bereziak

Zerga ordenantza honetan araututako tasak direla-eta zerga arloan ematen diren egintzak berrikusteko prozedura bereziak, hala nola egintza erabat deusezak berrikusteko prozedurak, egintza deuseztagarriak kaltegarri deklaratzekoak, tasak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzak baliogabetzekoak, bidegabeko diru sarrerak itzultzekoak eta oker materialak edo egitatezkoak zuzentzekoak, Arabako toki ogasunen Foru Arauan, Zergen Foru Arau Orokorrean eta aplikatu beharreko gainerako xedapen indardunetan ezarritakoaren bidez arautuko dira.

49. artikulua.- Berraztertze errekurtsoa

1. Zerga ordenantza honetan araututako tasen aplikaziorako eta eraginkortasunerako zerbitzu emailearen egintzen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, egintza onartu duen organoari berari zuzendua, egintza jakinarazten denetik hasita hilabeteko epean. Toki Ogasunen Foru Arauan eta indarra duten gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoaren bidez arautuko da errekurtsoa.

2. Berraztertze errekurtsoaren ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen legerian ezarritako moduan.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA**2020 ETA HURRENGO EKITALDIETARAKOTASA APLIKAGARRIAK**

BANAKETA:

Kontagailuaren diametroaren arabera hiru hileko kuota finkoa (eurotan):

Mota guztietako erabilerak:

| DIAMETROA | |
|---------------|--------|
| 13 milimetro | 5,819 |
| 20 milimetro | 9,889 |
| 25 milimetro | 13,387 |
| 30 milimetro | 19,206 |
| 40 milimetro | 36,371 |
| 50 milimetro | 55,285 |
| 65 milimetro | 72,742 |
| 80 milimetro | 91,646 |
| 100 milimetro | 126,56 |

Hiru hileko kuota aldakorra kontsumoaren arabera (euro metro kubiko bakoitzeko):

Etxeko erabilera:

| TARTEA | |
|-------------------------------|-------|
| 20 metro kubiko edo gutxiago | 0,251 |
| 21 - 50 metro kubiko | 0,503 |
| 51 metro kubiko baino gehiago | 1,809 |

Abeltzaintzako erabilera:

| |
|-------|
| 0,925 |
|-------|

Titulartasun publikoko kirol instalazioak:

| |
|-------|
| 0,503 |
|-------|

Beste erabilera batzuk:

| TARTEA | |
|--------------------------------|-------|
| 30 metro kubiko edo gutxiago | 0,704 |
| 31 - 100 metro kubiko | 0,925 |
| 101 - 240 metro kubiko | 1,578 |
| 241 metro kubiko baino gehiago | 2,171 |

SANEAMENDUA:

Kontagailuaren diametroaren arabera hiru hileko kuota finkoa (eurotan):

Mota guztietako erabilerak:

| DIAMETROA | |
|---------------|---------|
| 13 milimetro | 7,035 |
| 20 milimetro | 11,960 |
| 25 milimetro | 16,181 |
| 30 milimetro | 23,216 |
| 40 milimetro | 43,969 |
| 50 milimetro | 66,833 |
| 65 milimetro | 87,938 |
| 80 milimetro | 110,801 |
| 100 milimetro | 153,011 |

Hiru hileko kuota aldakorra kontsumoaren arabera (euro metro kubiko bakoitzeko):

Mota guztietako erabilerak:

| |
|-------|
| 0,513 |
|-------|

EDATEKO UREZ HORNITZEKO ZERBITZUAN ALTA EMATEKO KUOTA

Kontagailuaren diametroaren arabera kuota finkoa:

Mota guztietako erabilerak:

| DIAMETROA | TARIFA (EUROTAN) |
|-------------------|------------------|
| 13 - 15 milimetro | 103,987 |
| 20 milimetro | 123,173 |
| 25 milimetro | 203,683 |
| 30 milimetro | 274,667 |
| 40 milimetro | 389,659 |
| 50 milimetro | 419,718 |
| 65 milimetro | 459,788 |
| 80 milimetro | 484,209 |
| 100 milimetro | 567,242 |

EDATEKO UREZ HORNITZEKO ZERBITZUAN BAJA EMATEKO KUOTA

Kuota finkoa (kontagailuaren kalibrea edozein izanda ere):

Mota guztietako erabilerak:

| TARIFA (EUROTAN) |
|------------------|
| 46,029 |

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzeak aurreko 7.1. eta 7.3. eranskinetan ezarritako tarifa indargabetzen du.”

Amurrio, 2020ko otsailaren 13a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA